


DATORREN URTEKO AURREKONTUAK

'Aurrekontu parte hartzaileak' jarri ditu martxan udalak

Hernaniren lehentasunak zein diren herritarrek erabakitzea da udalaren helburua. Nahi duen guztiak har lezake parte. Bihar hasiko dira eztabaida saioak.



Aurtengo aurrekontuen taula (iturria: Hernaniko Udal Aldizkaria).

UDALAK hasi du datorren urteko aurrekontuak eztabaidatzeko prozesua. Herenegun, Mertxe Etxeberria alkateak eta Mila Apeztexea zinegotziak aurrekontuak egiteko formularen berri eman zuten. Iaz ere saiakerak egin zituzte, baina, aurtun "urrats kualitatibo" eman eta *Aurrekontu parte hartzaileak* proposatuak dituzte.

ZEIN DA FORMULA?

Prozedura martxan jartzeko udalak herria hamaika sektoretan banatu du: hezkuntza, emakumeak, kultura, auzokideak, kirola, euskara, adinduak, gazteak, merkatariak, nekazariak eta udal langileak. Sektore bakoitzarekin hiru bilera

egingo dituzte: lehena sistema bera eta udalaren funtzionamendua esplikatzeko; bigarrena proposamenak biltzeko, eta hirugarrena, batzarra, erabakiak hartzeko.

OSOTASUNEAN

Herria sektoreka banatu izanagatik, udalak garbi utzi du sektore bakoitzak ez duela bere alorraz bakarrik eztabaidatuko, ez. Helburua zabalagoa da: sektore bakoitzetik Hernaniko premia nagusiak zein diren aztertu eta aurrekontu orokorrak planteatzea. Eztabaidak eta proposamenak, beraz, herri osoari buruzkoak izango dira.

BOST ZERBITZU

Eztabaida irekia da, baina, uda-

lak garrantzitsuak iruditu zaizkion bost zerbitzuren bueltan bildu du: zabor bilketa, festak, zaharren egoitza, kiroldegia eta haur eskola. □

BILERA EGUNAK

Lehenengo fasean:

Astlehena-----Hezkuntza eta Kultura.

Asteartea-----Emakumeak eta Auzokideak.

Asteazkena-----Kirola eta Euskara.

Osteguna-----Adinduak, Gazteak eta Merkatariak.

Ostirala-----Udal langileak eta Nekazariak.

Ordua eta lekua:
20:00etan udaletxean. Adinduak: 19:00etan.

FUTBOL LIGA

Hernanik gaur Zallan jokatu du

Lehenengo bi partiduetan puntu bakarra lortu du.

3.MAILAKO taldeak Bizkai-ko Zallan jokatu du gaur 18:30etan. Lehen partidua enpatatu egin zuten eta aurreko astekoa galdu; puntu gosez joango dira gaur, beraz.

ATZOKO PARTIDUAK

Preferente mailako gizonetakoek 3-2 galdu zuten atzo

Erreterian; gazteen liga nazionalekoek 2-3 galdu zuten Zubipen Errealaren kontra; eta 2.mailako kadeteek 5-4 galdu zuten Lasarten. Emakumezkoen ligako eta gazteen ohorezko ligako partidua berandu amaitu ziren eta emaitzak biharko Kronikan aterako ditugu. □

BITERI KULTUR ETXEA

Ikastaroetan matrikulatzeko epea bihar zabalduko da

Irailaren 29an itxiko da. 19 ikastaro daude aukeran.

BITERI kultur etxeak egina du urteroko ikastaro eskaintza. Guztira, 19 aurtun: lau, haurrentzat; eta hamabost, helduentzat. Haurrek dantza kontemporaneo, pintura-marraskilaritza eta antzerkia-zirkoamimoa dituzte aukeran. Helduek, berriz: pintura, keramika, dantza kontemporaneo, tai-chi, yoga (hastapena eta sakontzea), ahots teknika, eskulanak, altzariak zaharberritzea, egur

taila, saloiko dantzak (hastapena eta sakontzea), saskigintza, argazkilaritza (hastapena eta sakontzea), eta pintura sedazko oihalean.

PREZIO BEREZIAK

Gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen duten familia-kideek prezio berezia dute.

Izena emateko ordutegia goizeko bederatzietatik ordu batera izango da. □

HERRI ARTEKO PELOTA TXAPELKETA

2-1 galdu du Hernanik Baztanen kontra

Datorren asteburuan Baztanen jokatu beharko dute.

Emaitzak:

Yubero-Alvarezek 22
Zabala-Mendizabalek 20
Erroizena- Zabalak 17

Arraztoa-Arraztoak 18
Jaurena- Eskudero 22
Leiza-Baleztenak 22

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA
00-01 IKASTURTEA:
Maila guztiak. Ikastaro bereziak
Erritmoak
Goizez, arratsalde eta gauz.
Matrikulaldia
Irailaren 22ra arte.
Galde ezazu euskaltegian
(Biteri Kultur Etxean)!
☎ 943 331896
e-mail: euskaltegi@hernani.net
HERNANIKO UDALA

Jatetxea

Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA

Ttarla Dantza Taldea
00/01 kurtso berrirako izen emateko egunak
Irailak 20 eta 21
Ordua: 18:00etatik 19:00etara
Lekua: Biteri Kultur Etxea
Oharra: Karneteko argazki bat eramane behar da

AMEGAR, C.B. ETXE TRESNAK
Ispizua, 27- HERNANI
Zuretzat berri degu!
ESKAINZA BEREZIAK
PHILIPS BIDEA, 23.900 pta
ZANUSSI GARBIGAILUA (800 r.p.m), 59.000 pta
MIKROUHINAK L.G., 12.900 pta
Telefonoa (943) 55.11.25 - Faxa (943) 55.16.03

TXILLIDA-LEKUREN INAUGURAZIOA

Sei granada aurkitu zituzten Erregea iritsi eta berehala

Guztira, 1300 gonbidatu ziren inaugurazioan, arte munduko izen haundiak barne.



Txillida-Lekun, atzo: ia denak elkarrekin.



Ertzain eta manifestariak Cuesta de la Muerten.

GOIZETIK Zabala inguru osoa hartu zuten atzo polizia indarrek. Errekaldeko bidea itxita eta airean bi elikoptero etengabean bueltaka. Hamabiak eta bostean iritsi dira Zabalagara airez Juan Carlos I eta Sofia. Justu orduan, Ertzaintzak *Mecar* motako sei granada aurkitu zituen inguruko baso batean (ez zuten zehaztu zein basotan). Ez dute, ordea, gauza garbirik zabaldu. Hasieran, deto-

nadore eta guzti botatzeko pronto zeudela esan dute; gero, berriz, botatzeko tuborik gabe zeudela, lehertu eta soinua egiteko bakarrik zirela

GALARRETARA

Erregearen eta Aznarren bisita salatzeko, Galarreta aldera jo zuten 300 lagun inguruk, tartean EHko zinegotziak zirela. *Cuesta de la Muerten* bukaran, ordea, Ertzaintzak bidea

itxi zien. Prentsaurrekoa eman bertan eta ostera, behera jo zuten. Manifestari batzuek gorra egin zuten berriz eta Ertzaintzak kargatu egin zuen.

26-27AN ZABALIK

Txillida-Leku hil honen 26an edo 27an zabalduko dute publikoarentzako. 850 pezeta izango da sarrera, eta hasieran behintzat 10:30tik 14:00etara zabalduko dute. □

Jubilatuak Almeriara

JUBILATU Etxeak Almeriarako bidaia antolatua du. Datorren ostegunean (21) aterako dira eta hamar egun pasako dituzte han. Dagoneko autobusa bete dute udarari Mediterraneo giroan bukaera polita emateko.

ANTOLATZAILEEN OHARRA

Hasieran, autobusa goizeko zortzietan izatekoa bazen ere, azkenean zazpizetan aterako da Atsegindegitik. □



Gizon-emakumeak Urbieta kalean paseatzen.

HERNANI HIZKUNTZAK (INGELES)

MATRIKULA IREKITA

☎ 943 33 11 08

KALE NAGUSIA 41, 1
20.120 HERNANI

ZORIONAK!

Haritz, Ibai, Javi, Jon, Amaia,
Eluska, Laura, Andoni eta Xabi

CAMBRIDGE UNIVERSITY
FIRST aprobatazuegatik.

INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK

IKASTAROA	DATA	HIZKUNTZA	ORDUTEGIA
WINDOWS + WORD 2000	Urriaren 26tik 6ra	Euskeraz	16tik 20ra
Microsoft EXCEL 2000	Urriaren 16tik 20ra	Euskeraz	16tik 20ra
Microsoft ACCESS 2000	Urriaren 23tik 27ra	Euskeraz	16tik 20ra
WINDOWS + WORD 2000	Urriak 21tik Azaroak 11ra	Gaztelaz	9tik 14ra
INTERNET	Azaroaren 13tik 17ra	Euskeraz	16tik 20ra
FRONTPAGE 2000	Azaroaren 20tik 24ra	Euskeraz	16tik 20ra

INFORMAZIO GEHIAGO:

Larramendi kalea 11, 20120 HERNANI. Tfnoa: 943551000
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 15tik 22ra. Larunbatak 9tik 14ra.

HITZ BITAN

✓ TXIRRINDULARITZA.

Kaiku taldeko txirrindulariek bukatu dute denboraldia. Atzo Beasainen izan zuten azkenengo karrera eta ondo korritu bazuten ere, ez zuten podiumik lortu. Jon Armendariz entrenatzaileak Kronikari esan dionez, aurtengo denboraldia aspaldiko onena izan da. Hiru karrera irabazi dituzte (bi Aitor Markosek eta bat Fran Vicentek) eta gainerakoak ere ondo ibili dira. Bestalde, Zikuñagako Amako zikloturistak Altzagaratera doaz gaur, goizeko zortzietan Zinkoeneatik aterata.

✓ OMENALDIA

Juanito Oiarbide Txilibitari atzo egin zioten omenaldia ereñotzuarrek. Goizean 30 bat lagun Onddiko oroigarria igo ziren eta Ereñotzuko Txilibita enparantzan lore eskeintza egin zioten eguerdian. Ondorengo bazkarian 70 bat lagun elkartu ziren. Bestalde, Gotzon Aranbururi astelehenean egitekoa zioten epaiketa atzeratu egin da. Beraz, asteleheneko asanblada ez da egingo, antolatzaileek Kronikari esan diotenez.

✓ ERRUGBIA

Hernaniko nagusien taldea partidurik jokatu gabe gelditzen atzo. Lagunartekoa Irunen aurka zuten, baina hauek azaldu ez zirenez entrenamentua eginda joan ziren dutxara. Gaur, neskek 10:30etan jokatuko dute, kadeteek 10:30etan eta jubentilek 11:30etan; denak Baionaren kontra eta Zubipen. □

AGENDA

◆ **ERAKUSKETAK**
Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udalaletxean bertan,
12:00-14:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren
Kuaeroak.xema taberan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz, 48
☎ 943 551793
▶ Gaeuz: Bulnes
Etxeberri auzoa
☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

▶ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizean 2 orduz. Arratsaldetan deitu. **Tel: 943 55 25 41.**



IRRINTZI TABERNA
Ereñotzu Auzoa, 943 555601



ARLAR TABERNA
ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506



SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

AUKERAKO AUTOAK

Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Opel Astra 'Caravan' Diesel	NA-AJ
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Renault Expres Diesel	SS-AS
Suzuki 'Todo terreno'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...